SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

**UDALBATZA AKTA**

**2021EKO EKAINAREN 2KO OHIKO SAIOA**

Soraluzeko herrian, bi mila eta hogei ta bateko ekainaren 2an, 19:00 orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Udalbatza aretoan Patricia Borinaga Albeniz, Veronica Galarraga Izagirre eta Iñaki Rubio Torrientes, Alkateorde jaun-andreak eta Ramon Gallastegi Aldazabal, Abel Olaizola Alberdi, Unai Larreategi Azurmendi, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Roke Akizu Aizpiri eta Jone Alberdi Alvarez zinegotzi jaun-andreak, Iker Aldazabal Basauri Alkate jaunaren Lehendakaritzapean elkartu dira, lehenengo deialdiz eta behin behineko Idazkari lanetan Itziar Sagastagoia Zabala andrea arituz.

Bertaratu ez izana justifikatzen du Maite Quintanilla Letek.

Honen berri ematen da: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 25. 6 artikuluan oinarrituta, 2021eko ekainaren 2an, Maite Quintanilla Lete zinegotziak, bere amatasun berria dela eta, bere botoa Unai Larreategi Azurmendi zinegotziaren esku uzteko asmoa adierazi du, 2021eko ekainaren 1etik 2021eko irailaren 30era arte.

**1.- 2021EKO APIRILAREN 28KO SAIOAREN AKTA ONARTZEA.-**
Aho batez onartu da 2021eko apirilaren 28ko udalbatza akta.

**2.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.-**

Apirilaren 23ko 105/2021 zenbakidun dekretutik maiatzaren 21eko 121/2021 zenbakidun dekretu arteko Alkatetza dekretuen berri jaso du Udalbatzak.

**3.- 2020. URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRAREN ONARPENA.-**

**ACTA DEL PLENO**

**SESIÓN ORDINARIA DE 2 DE JUNIO DE 2021**

En la localidad de Soraluze, siendo las 19:00 horas del día 2 de junio de dos mil veintiuno, previa convocatoria, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento las señoras y los señores Patricia Borinaga Albeniz, Verónica Galarraga Izagirre e Iñaki Rubio Torrientes, Tenientes de Alcalde, y Ramón Gallastegi Aldazabal, Abel Olaizola Alberdi, Unai Larreategi Azurmendi, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi, Roke Akizu Aizpiri y Jone Alberdi Álvarez concejales, se reúnen bajo la presidencia del Alcalde D. Iker Aldazabal Basauri, en primera convocatoria, actuando como Secretaria accidental Dña. Itziar Sagastagoia Zabala.

Excusa su asistencia la concejala Maite Quintanilla Lete.

Se da cuenta de que en base al artículo 25. 6 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi, en fecha de 2 de junio de 2021 y debido a su reciente maternidad, la concejala Maite Quintanilla Lete ha manifestado su intención de delegar su voto en el concejal Unai Larreategi Azurmendi, desde el 1 de junio de 2021 hasta el 30 de septiembre de 2021.

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 28 DE ABRIL DE 2021.-**
Se aprueba por unanimidad el acta del Pleno de 28 de abril de 2021.

**2.- DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.-**
Se da cuenta al Pleno de los decretos comprendidos entre el decreto de Alcaldía número 105/2021, de 23 de abril, y el número 121/2021, de 21 de mayo.

**3.- APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO DE 2020.-**



Santa Ana, 1 • SORALUZE (20590) • Tfn.: 943753043 • Fax: 943753112 • udala@soraluze.eus • www.soraluze.eus

AURREKARIAK

2021eko martxoaren 29an Kontu batzorde bereziak 2020 urteko Aurrekontuaren eta Ondarearen Kontuak eta kontu orokorra aztertu zituen eta oneritzia eman zien.

Ondoren, Kontu orokorraren informazio publiko aldia ireki zen Gipuzkoako aldizkari ofizialean 2021eko apirilaren 14an argitaratuz geroztik.

AZALPENA

Kontu orokorrak izaera ezberdineko gaiak islatu ditu eta bere xede nagusia udal erakundearen ondare eta ekonomia egoera jasotzea da, eta aurrekontuaren exekuzioa laburbiltzea, jarraian, Euskadiko Kontu epaitegiari berri emateko.

ORGANU ESKUDUNA: Udalbatza da, 7/85 legearen 22.2.e) artikuluaren arabera.

Kontu batzorde bereziak proposatuta, **UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ERABAKI DU:**

Soraluzeko Udalaren 2020ko aurrekontuaren kontu orokorraren edukia onartzea eta Euskadiko kontu epaitegiari igortzea.

ANTECEDENTES

El 29 de marzo de 2021 la Comisión Especial de Cuentas examinó y aprobó las Cuentas del Presupuesto y Patrimonio del año 2020.

Posteriormente, se abrió un periodo de información pública de la Cuenta General en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 14 de abril de 2021.

EXPOSICIÓN

La cuenta general refleja cuestiones de diferente naturaleza y su objetivo principal es recoger la situación patrimonial y económica de la entidad municipal y resumir la ejecución del presupuesto para, a continuación, dar cuenta al Tribunal de Cuentas de Euskadi.

ÓRGANO COMPETENTE: es el Pleno, de acuerdo con el artículo 22.2.e) de la Ley 7/85.

A propuesta de la Comisión Especial de Cuentas **EL PLENO, POR UNANIMIDAD, ACUERDA**:

Aprobar el contenido de la Cuenta General del Presupuesto del Ayuntamiento de Soraluze para 2020 y su remisión al Tribunal de Cuentas de Euskadi.

**4.- 2022. URTEKO LAN-EGUTEGIRAKO HERRIKO JAI-EGUNA IZENDATZEA.-**

Udal Batzarrak aho batez erabaki du uztailaren 26a, Santa Ana eguna, herriko jai-egun izendatzea 2022. urteko lan-egutegirako.

**4.- DESIGNACIÓN DE FIESTA LOCAL PARA EL CALENDARIO LABORAL DEL AÑO 2022.-**

La Corporación Municipal acuerda por unanimidad designar el día 26 de julio, festividad de Santa Ana, como fiesta local para el calendario laboral del año 2022.

**5.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA SORALUZEKO UDALAREN (GIPUZKOA) ARTEKO LANKIDETZA PROTOKOLOA, ERTZAINTZAK ETA UDALTZAINGOAK ELKARLANEAN JARDUTEKO, NON INTZIDENTZIEN ZERRENDAK JASOTZEN BAITIRA ETA TITULARTASUNAK ESLEITZEN.**

**5.- PROTOCOLO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y EL AYUNTAMIENTO DE SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS (GIPUZKOA), PARA LA COOPERACIÓN DE LA ERTZAINTZA Y LA POLICÍA LOCAL, EN EL QUE SE FIJAN LOS LISTADOS DE INCIDENCIAS Y ASIGNACIÓN**

**DE TITULARIDADES.**

Lankidetza-protokoloa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Soraluzeko Udalaren arteko lankidetza-hitzarmen markoaren laugarren klausulan xedatutakoa garatzeko egiten da, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzarako, 2020ko ekainaren 3an sinatua.

El protocolo de colaboración se realiza en desarrollo de lo dispuesto en la cláusula cuarta del Convenio Marco de Colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Ayuntamiento de Soraluze-Placencia de Las Armas para la cooperación entre la Ertzaintza y la Policía Local firmado el 3 de junio de 2020.

Deba-Urola ertzain-etxearen eta Soraluzeko udaltzaingoaren arteko harremanak arautzeko.

Al objeto de regular las relaciones entre la Ertzain Etxea Deba-Urola y la policía local de Soraluze.

Udalbatzak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

El Pleno, adopta por unanimidad los siguientes acuerdos:

Lehenengoa. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Soraluzeko Udalaren arteko lankidetza-protokoloa onartzea, Ertzaintzak eta udaltzaingoak elkarlanean jarduteko, non intzidentzien zerrendak jasotzen baitira eta titulartasunak esleitzen.

Primero. Aprobar el protocolo de colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Ayuntamiento de Soraluze, para la cooperación de la Ertzaintza y la policía local, en el que se fijan los listados de incidencias y asignación de titularidades.

Bigarrena. Alkate-udalburuari ahalmena ematea protokoloa sinatzeko, Soraluzeko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz.

Segundo. Facultar al Alcalde-Presidente para la firma del protocolo, en nombre y representación del Ayuntamiento de Soraluze.

Hirugarrena: Erabaki hau Deba-Urola Ertzain Etxeari jakinaraztea eta alkate-udalburuak sinatutako hitzarmenaren bi ale bidaltzea.

Tercero: Notificar este acuerdo a la Ertzain Etxea Deba-Urola y remitir además el convenio suscrito por el Alcalde-Presidente, por duplicado ejemplar.

**6.- MOZIOA. ITXAROPENA JUBILATU ELKARTEAK AURKEZTUTAKOA.-**

Patricia Borinaga zinegotzi andreak irakurri eta gero**, UDAL BATZARRAK AHO BATEZ MOZIOA ONARTZEA ERABAKI DU**:

**6.- MOCIÓN PRESENTADA POR ITXAROPENA JUBILATUEN ELKARTEA.-**

Tras su lectura por parte de la concejala Dña. Patricia Borinaga, **EL PLENO, POR UNANIMIDAD ACUERDA** aprobar la siguiente moción:

*"Soraluzeko ITXAROPENA Nagusien Elkarteak aurkeztutako mozioa, banketxeen zerbitzuei buruzkoa.*

*ARRAZOIEN AZALPENA*

*Mozio hau aurkezteak honako ideia honetan du abiapuntua: banku-jarduerak uste du denok gaudela haren zerbitzura beraren helburua lortzeko: gure lanarekin aberastea.*

*"Moción presentada por ITXAROPENA Nagusien Elkartea de Soraluze sobre los servicios de las entidades bancarias.*

*EXPOSICIÓN DE MOTIVOS*

*La presentación de esta moción parte de la constatación de que la banca supone que estamos a su servicio para conseguir su objetivo: **enriquecerse con nuestro trabajo**.*



Santa Ana, 1 • SORALUZE (20590) • Tfn.: 943753043 • Fax: 943753112 • udala@soraluze.eus • www.soraluze.eus

*2019. urtean banketxeen etekinak %24 jaitsi ziren, 2018an lortutakoekin alderatuta. 15.140 milioi irabazi beharrean, "soilik" 12.250 milioi irabazi zituzten.*

*Banketxeen interesak %3,8 igo dira. Komisioak %0,1 jaitsi dira, eta 9.797 milioi eurokoak izan dira.*

*Bankuek diote galerak dituztela. Haien hizkuntzan esan nahi du lehen baino gutxiago irabazten dutela, urduri daudela, eta euren helburuak lortzea erraztuko duen bide bat hartzen ari direla. Etekin handiak nahi dituztenez, sukurtsalak ixten dituzte, langileak kaleratu, eta jendaurreko arreta-ordutegia murriztu, enpresetan eta dirua daukan jendearengan zentratzeko. Murrizketa horiekin guztiekin, komisio berri eta handiak kobratu nahi dituzte.*

*Langile gutxiago daudenez eta jendaurreko ordutegia murriztuagoa denez, lehen leihatilan egiten ziren gestio asko eta asko orain ordenagailuz edo kutxazain automatikoan egin behar dira.*

*Pertsona batzuei kosta egiten zaie kutxazain automatikoarekin moldatzea eta beste batzuk ez dute beren kontu-zenbakia internet bidez eman nahi pirata informatikoen beldurrez.*

*Pertsona nagusiak, batez ere, ez dira gai makinen hizkuntzari aurre egiteko, ulertzen lagunduko dien pertsona baten laguntzarik gabe: ez dira seguru sentitzen.*

*Udalek errealitate hori bere gain hartu behar dute, herritarrei segurtasuna eta babesa emanez.*

*Beharrezkoa da arazoa konpontzea, nahiz eta trantsizio-egoera bat izan. Belaunaldi berrientzat, ikasketa gehiago duten aldetik, ingurune berbera pizgarria egingo zaie etengabe eguneratzeko.*

*Udal batek ezin du onartu bere herritar askok tratu txarrak jasotzea banketxeen aldetik, haren diruarekin etekin izugarriak lortu eta nagusien ekonomia arriskuan jarri ondoren, produktu toxikoak iruzurrezko publizitatearekin salduta.*

*Banketxeek gure pentsioen diru-sarrerak nahi dituzte, kontuak irekita izan ditzagun eta mantentze-komisioak ordain ditzagun.*

*El año 2019 los beneficios de la banca cayeron un 24%, comparando con los obtenidos en el año 2018. En vez de ganar 15.140 millones, "únicamente" ganaron 12.250 millones.*

*Los intereses de la banca han tenido un incremento del 3,8%. Las comisiones han bajado un 0,1%, y han sido de 9.797 millones de euros.*

*La banca dice que tiene pérdidas. En su lenguaje significa que ahora gana menos que antes, se impacienta y adopta un camino que va a facilitar el alcanzar sus objetivos. Como quiere grandes beneficios, cierra sucursales, despide gente y reduce el horario de atención al público para centrarse en las empresas y en gente con dinero. Con todas estas reducciones aspira a cobrar nuevas y cuantiosas comisiones.*

*Como dispone de menos personal y con un horario al público más reducido, muchas de las gestiones que se hacían por ventanilla, ahora se han de hacer por ordenador o por el cajero automático.*

*Hay personas a las que les cuesta operar con el cajero automático o que no se fían de dar por internet su número de cuenta por miedo a los piratas informáticos.*

*Hay gente, sobre todo mayor, incapaz de hacer frente al lenguaje de las máquinas sin la presencia de una persona que les ayude a entenderlo: sienten inseguridad.*

*Las Ayuntamientos deben asumir esta realidad, dando seguridad y protección a la ciudadanía.*

*Es necesario resolver el problema, aunque se trate de una situación transitoria. A las nuevas generaciones, más escolarizadas, el mismo entorno les supondrá un estímulo permanente para la actualización funcional.*

*Un ayuntamiento no debe permitir que gran parte de su ciudadanía sea maltratada por la banca, tras conseguir con su dinero pingües beneficios y poner en riesgo la economía de las personas mayores al venderles productos tóxicos con publicidad engañosa.*

*Bancos que quieren los ingresos de nuestras pensiones para mantenernos cuentas abiertas y cobrarnos comisiones de mantenimiento.*

*Banketxeek 64.000 milioi euro ZOR dizkigute Estatuko herritar guztioi, bankuen erreskateagatik.*

*Hauskortasun fisikoak eta kognitiboak, bakardadeak, beldurrek eta segurtasun ekonomikorik ezak eraginda, pertsona batzuek hainbat planteamendu finantzario onar ditzakete, erakundearentzat pertsona nagusiarentzat baino askoz ere onuragarriagoak direnak. Hitz egiten ari gara bermatutako errentari buruz, alderantzizko hipotekari buruz, nagusientzako errentari buruz... Denak ere premia gehien duenaren lepotik aberasteko sortutako produktuak.*

*Horregatik guztiagatik, Soraluzeko Udalari eta hura osatzen duten talde politikoei proposamen hauek aurkezten dizkiegu, azter ditzaten:*

- *Soraluzeko Udalak finantza-entitateei eskatzen die baliabideak jartzeko, bulego-ordutegi osoan zehar zerbitzu egokia eskaini dezaten, erabiltzaileen beharrei erantzunez. Bereziki, nagusien beharrei erantzuteko, askok eta askok ezin dituztelako gestioak online egin, eta egoera penagarriak jasan behar dituztelako banketxeetara joaten direnean.*

- *Soraluzeko Udalak banketxeei eskatzen die mantentze-komisioak ez kobratzeko hileko LGSren azpitik (950€) dauden diru-sarrerak dituzten pentsiodunei eta kalitatezko zerbitzu espezializatuak eskaintzen zentratzeko, hala erabiltzaileen premia ezberdinei aurre egin eta erabiltzaile bakoitzari erantzun bat emate aldera.*

- *Soraluzeko Udalak eskatzen die banketxeei eskaintzen dituzten zerbitzuen eta produktuen gaineko informazio egokia, legezkoa eta gardena emateko.*

- *Soraluzeko Udalak herriko banketxeei bidaliko die adostutako puntu hauek betetzeko eskabidea, eta baita hartutako akordioaren berri EUDEL Euskal Udalen Elkarteari.”*

*Una banca que nos DEBE a todos los ciudadanos del Estado los 64.000 millones de euros del rescate bancario.*

*La fragilidad física, cognitiva, la soledad, los miedos, la inseguridad económica, pueden hacer que algunas personas acepten planteamientos financieros que benefician mucho más a la institución que a la persona mayor. Nos referimos a la renta garantizada, la hipoteca inversa, la renta para mayores... productos para enriquecerse a costa de quien tiene más necesidad.*

*Por todo ello, sometemos a la consideración del Ayuntamiento de Soraluze y de los grupos políticos que lo componen las siguientes propuestas:*

- *El Ayuntamiento de Soraluze insta a las entidades financieras refuercen los recursos para ofrecer un servicio adecuado durante todo el horario de oficina, cubriendo las necesidades de los usuarios. En especial a la gente mayor que no puede acceder a las gestiones online y se ve abocada a situaciones penosas al acudir a las oficinas bancarias.*

- *El Ayuntamiento de Soraluze insta a la banca que suprima el cobro de comisiones de mantenimiento a aquellos/as pensionistas cuyos ingresos se encuentren por debajo del SMI mensual (950€), y se centren en ofrecer servicios de calidad especializados para atender las diferentes necesidades y poder así dar respuesta a cada usuario/a.*

- *El Ayuntamiento de Soraluze insta a las entidades bancarias a dar información adecuada, legal y transparente, sobre los servicios y productos que ofertan.*

- *El Ayuntamiento de Soraluze trasladará a las entidades bancarias del municipio la petición del cumplimiento inmediato de los puntos acordados, así como la comunicación de este acuerdo a la Asociación de Municipios Vascos EUDEL.”*

Unai Larreategi zinegotziak eskerrak ematen dio Itxaropena elkarteari gaia eztabaidara ekartzeagatik, eztabaida beste talde batzuetara handitzeko aukera ere ematen duelarik.

El concejal Unai Larreategi agradece a la asociación Itxaropena que traiga a debate el tema, hecho que permite ampliar el debate a otros grupos.



Santa Ana, 1 • SORALUZE (20590) • Tfn.: 943753043 • Fax: 943753112 • udala@soraluze.eus • www.soraluze.eus

Esaten du banketxeek hartzen dituzten neurri hauek irabaziak mantentzeko besterik ez direla hartzen, bulego fisikoen itxiera aipatzen du eta espero du bulego fisiko gehiago ez ixtea beste toki batzuetan gertatu denaren antzera, non zerbitzua kutxazain automatikoaren bidez ematen den. Gazteak ohituta daude, ez ordea adineko pertsonak, eta ikuspegi sozial batetik gogoan izan behar dugu neurri horiek sortzen dituzten alboko kalteekin eta mozioak arazoa konponduko ez badu ere berau agerian uzten du.

Dice que estas medidas que toman los bancos no se toman más que para mantener los beneficios, se refiere al cierre de las oficinas físicas y espera que no se cierren más oficinas físicas como ha ocurrido en otros lugares, donde el servicio se presta a través de cajero automático. Los jóvenes están acostumbrados no así las personas mayores, y, desde un punto de vista social debemos tener presente los daños colaterales que generan estas medidas y aunque la moción no solucione el problema lo evidencia.

Patricia Borinaga zinegotziak aipatu ditu, halaber, banku-erakundeak hartzen ari diren neurriak, ordutegiak murriztea adibidetzat hartuta, oso modu negatiboan eragiten dietenak adineko pertsonen taldeei. Mozio hau onestearekin batera, harea- aletxoaren ekarpena egiten da, eta beste instantzia batzuei eskatzen zaie urrats egokiak eman ditzatela.

La concejala Patricia Borinaga cita también las medidas que se está, adoptando por parte de las entidades bancarias, poniendo como ejemplo la reducción de horarios, que afectan de manera muy negativa a colectivos como las personas mayores. Con la aprobación de esta moción se aporta su granito de arena, y se insta a otras instancias a que den los pasos oportunos.

Alkateak gogorarazi du BBVAren bulegoak ateak itxi zituela Soraluzen, eta gaur egun herriak hiru banku-bulego dituela. Bulego horiei adostutako mozioa bidaliko zaie, baita EUDELi ere.

El Sr. Alcalde recuerda que la oficina del BBVA cerró sus puertas en Soraluze y que a día de hoy el pueblo cuenta con tres oficinas bancarias, a las que se les enviará la moción acordada, así como a EUDEL.

**7.- ESKARI ETA GALDERAK.-**

**7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-**

-Alkate jaunak jakinarazi du ziur aski ez ohiko bilkura egingo dela uztailean.

-El Sr. Alcalde informa de que probablemente se celebrará un pleno extraordinario en julio.

-Patricia Borinaga zinegotziak jakinarazi duenez, ekainaren 3an, 18: 30ean, Itxaropena taberna inauguratuko dute.

-La concejala Patricia Borinaga informa de que el día 3 de junio, a las 18:30 se inaugura el bar del Itxaropena.

Unai Larreategi zinegotziak adierazten du nabarmena zela premia bat zegoela eta bere taldeak proposatutako laguntzarekin, geroago aurrekontuetan txertatu zena, jendea animatu dela lizitatzera. Egitate honek asko balio du, 500€ko laguntza bat baino gehiago, eta, kasu honetan hartutako erabakia egokia izan dela frogatzen da.

El concejal Unai Larreategi señala que era evidente que había una necesidad y que con la ayuda propuesta por su grupo e incluida en los presupuestos posteriormente, la gente se ha animado a licitar. Este hecho es muy valioso, más que los 500 €de ayuda, y en este caso se demuestra que la decisión adoptada ha sido acertada.

Patricia Borinaga zinegotziak esan du esleipendunak gogoz hasten duela ibilbidea, eta belaunaldi ezberdinak elkarrekin bizitzeko gune bat sortu nahi dela, adinekoei lehentasuna emanez.

La concejala Patricia Borinaga comenta que la adjudicataria comienza esta andadura con ganas y que se pretende crear un espacio donde convivan diferentes generaciones dándole prioridad a las personas mayores.

Alkateak zorterik onena opa dio esleipenduna den Begoña Gallastegiri, eta denei egin die establezimendura joateko gonbita.

El Sr. Alcalde le desea la mejor de la suerte a Begoña Gallastegi, la adjudicataria e invita a todos a acudir al establecimiento.

Eta arratsaldeko zazpirak eta hemeretzi minutu direnean, Lehendakaritzaren aginduz saioa bukatutzat eman da.

Siendo las diecinueve horas y diecinueve minutos, de orden de la Presidencia se levanta la sesión.

Hori guztia hala izan dela ziurtatu dut.

De todo lo cual certifico.

Behin-behineko Idazkaria,



Santa Ana, 1 • SORALUZE (20590) • Tfn.: 943753043 • Fax: 943753112 • udala@soraluze.eus • www.soraluze.eus